

# Erljioa Bizkaiko Foruetan (I)

*Las religiones no han solido estar desconectadas de la realidad social en la que tomaron cuerpo; al contrario, han procurado influir en ella y transmitir a la misma sus valores. Así, en lo que se llamó "régimen de Cristiandad" la jerarquía de la Iglesia, el poder civil constituido y el pueblo creyente a su modo, se esforzaron en que las costumbres y leyes respondieran a la visión cristiana del mundo. Los Fueros de Bizkaia son un ejemplo de ello.*

Euskal Herria Erdi Aroan kristautu zenetik, Elizak euskal gizartea jatortasun kristauetz antolatatu nahi izan zuen, betiere kristautasun hari garaian garaiko Kristandade-aurpegia ematen ziola. Horregatik, gure Foru-Erakunde eta Legeak ere garaiko balio kristauak onartuta antolatatu eta idatzi ziren.

## Jainkoa

Gaurko gure egunetatik begiratura, orduan zuten egoera hura (botere eliztar eta zibila erabat besarkatuta bizi zena) arrotza gertatzen zaigu, noski; baina begiratzekoa ere bada, Euskal Herriko iragan bizi bateko izaera eta aurpegia baita berori. Atzera begirako honetan Bizkaiko Foruaren adibidea ekarriko dut hona, gainerako gure Herrialdeen artean aparteko ezaugarriak baititu Bizkaiko honek.

Foruek zer begiratu zuten Bizkaiko gizartea kristauago izan zedin? Guztien fedearen araberako balioak zaintzen saiatu ziren herri-tarrak eta zuzenago eta indartsuago agintari eta jaunak. Esan beharra dago honelako legerabaki politiko eta erlijiosoak garaian garaiko haizeen araberakoak izan ohi zirela, eta, gainera, indar sozial nagusien interes eta borondatera makurtu ohi zirela.

Foruen politikak bere lehentasunak izan zituen (aginte politikoa, justizia, bakea, ondasunak, etab.). Erljioak ere bere tokia zuen hor, ez derrigor lehen mailan, baina betiere hortxe, politika orokorrak eman nahi zion lekuan. Alde honetatik interesgarria da jakitea gure asabek zer-nolako aukerak egin zituzten beren kristautasuna gizartean gorpuzteko.

Foru Berriak (1526) Jainkoa aintzakotzat hartu zuen, *biraoa* debekatu eta zigortzean: "El juez pueda proceder de Oficio, y a captura contra los basfemadores de Dios nuestro Señor, e sus Santos [...], la pena de ellos treinta días de cárcel!" Aiarako Legeek ere gogoan hartu zuten hori, 1373an bezala 1469an: "cualquiera que renegase de Dios que pague de pena 300 maravedís por cada vegada [vez]". Ikusten da, hortaz, birao-zigorak ez zirela makalak.

## Juramentuz ehundutako gizartea

Jainkoa lekuko hartuta, balio erlijiosoak zuen juramentua egitea ohikoa zen Erregimen Zaharreko politikan: Bizkaiko Jaun edo Andere berriak kargua hartzean zin egin behar zuen Jainkoa lekuko jarrita, Foruak gordeko zituela alegia. Eta horretarako Bizkaira etorri behar



zuen Jaun berriak, eta Jaurerriko ordezkarien aitzinean zin egin: "[Que cada nuevo Señor de Bizkaia] haya de venir en persona a Vizcaya, é hacerles sus juramentos, é prometimientos, y confirmarles sus privilegios, é usos y costumbres", dio Foru Berriak bere lehen pasartearen.

Beheragoko agintariei ere eskatu ohi zitzairen Legeekiko juramentua, Foru Zaharreen bezala Berrian, eta kargudun arruntek legezkoak beteko zituztenaren promesa juramentuz indartu behar zuten, ofizio edo kargu publiko hartzean, eta herritarrek harreman pribatuak legeztatzeko, edo testigu faltan zirenean Epaitegietan aitortpenaren egia bermatzeko.

Ikusten da, bada, Foruek eratu zuten Justizia Jainkoaren aurrean emandako hitzaren gainean ere eraiki zela, horrela, azkenean, zigor-legearen indarra eta norberaren salbamentu jokoan zirela, ongi ulertzen baitzen Jainkoak zigortu zezakeela mundu honetako gezur zibila ere, edota mundu honetan bertan ez bazen, Bestean.

Gizarteko bizitza ordena onean jartzeko, ugari dira juramentuaren premia zuten egokiera ezberdinak: Eskribauen zereginetan, salerosketako harremanetan, gaizkileen aurkako albiste eta argibideak jasotzean, hamarrenak zuzen banatzean, ondasunaren jabetzari eusteko, herritarraren kaparetasuna eta noblezia frogatzeko; auzi-konponbidea lortzeko "herritar onek" ere zin egin behar zuten iritzi edo lekukotza ematean, eta abar.

Hau da, fedean eta kristautasunean fin-

katutako segurtasun erlijioso-politikoaren juramentuen hau, herritarren kontzientzia pertsonalak Jainko aitortu baten aurrean promesa egiten zuela. Hortaz, horrela jaso eta segurtatu zen Erakundeek eta gizarteak behar zuten bizikidetzarako sistema sozio-ideologikoa. Eta hori dena Elizari berari lege jakin baten bidez ofizialtasunik aitortu gabe.

Hala ere, Foruek beti zaindu nahi izan zituzten lege zibilez ere ohitura eta dotrina kristauak. Herejia pertsegitua izan zen, baina kasu honetan espresuki aitortzen zitzaion eskumena Elizari; bestalde, heretikoak izan ziren, beste gutxiren artean, torturatuak izan zitezkeen bizkaitar bakarrak, nahiz eta gainera koan "a vizcaino alguno no se dé tormento alguno, ni amenaza de tormento, directe ni indirecte, en Vizcaya, ni fuera de ella en parte alguna" agintzen zuen Foru Berriak.

Odol garbiaren gorabeherak sortu zirenetik (Toledo, 1449), Bizkaian ere juduek, mairuek eta "kristau berriek" ez zuten legezko presentzia eroririk izan. Kristautasunetik kanpo koak, edo bataiatu bai baina iruzur egiten omen zebiltzan bataiatu berriek ez zuten ospe onik izan.

Euskal Herrian bi xedetarako balio izan zuen arazo horrek: kristautasun garbia genuela aditzera emateko, eta bide batez herritar guztiena zela hemen izaera noble edo kaparea argudiatzeko. Horrek asko balio zuen garai haietan eta, batez ere erbestean, gizarte-gora egin ahal izateko.

**Joseba Intxausti**